

Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 24a / Gehigarri berezia


Adin guztietarako
moduko ekintzak
eta parranda




SANPEDROAK05

ANDER GILLENIA

San Pedro Jaiak



zorionak Eskoriatzar guztioi

FAGOR 

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, S. Coop.

Torrebaso 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
SPAIN

Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



ALKATEARENAGURRA/ Juan Carlos Bengoa

Dagoeneko bi urte egin ditu udal agintaldiak, eta aurreko urteetan hasitako proiektuak betetzen hasi dira, Eskoriatzan eragin handia izango duten proiektuak: batetik, autobidearen lanak berehala hasiko dira, eta, bestetik, tranbiak herriko kaleetan zehar izango duen ibilbidearen zehaztapena.

Proiektu horien garapen eta jarraipena ia San Pedro jaiekin batera gertatuko da, baina horrek ez du eragoztiko herriko jaiez gozatzea.

Bestalde, urteroko topikoak izan daitezke, baina ezin ditugu ahaztu kultura eta jai batzordeetan lan egiten duten guztiak, egiten duten esfortzuagatik egitarau zabal eta askotarikoa prestatzeko, eskoriatzar guztien gustuei egokituta. Era berean, urtero gogoratu behar ditugu hainbat arrazoiengatik gure artean ez daudenak.

Agur honekin, jaiez gozatzeko eta parte hartzeko dei egin gura dizuete, aurtengo lehiaketan saritutako lelo bati utsiz:

"Arazuak basterrien itxi, San Pedruak bixi-bixi bizi".

**Gaztetxearen eta presoan lagunen egitaraua**

Azkeneko urteotan moduan, gazte batzarrak eta presoan aldeko taldeak egitarau zabala antolatu dute jaietarako (ikus zutabea).

Besteak beste, hainbat kontzertu egingo dituzte, eta ibarreko zein kanpoko talde esanguratsuek joko dute gaztetxean eta herriko plazan. Horrez gain, bi talde horiek nagusien danborradan batailoia izango dute, zein

baino zein burrundara handiagoa egiteko ahaleginetan.

Jaietako egun guztietarako prestatu dituzte ekintzak; are gehiago, uztailaren 2a indartu egin gura dute. Herriko koadrilei eskatu diete jaiak egun horretaraino luza ditzaten, eta ekintzetan esku har dezaten: joko eta kirol probetan, kalejiretan, kontzertu eta bestelako emanaldietan.

Martitzena, 28

22:30 NAGUSIEN DANBORRADA. Gaztetxe eta ezker abertzaleko batailoia.

00:00 DISKO JARTZAILEAK gaztetxean.

Eguaztena, 29

16:30 KONTZEJUPE 3. PILOTA TXAPELKETA. Kontzejupen.

18:00 Punk-rock jaialdia gaztetxean: THE FOUR SISTERS, LOS CRETINOS eta beste bi talde.

Eguena, 30

16:00 MAHAI-FUTBOL TXAPELKETA gaztetxean.

22:30 Rock kontzertua gaztetxean: LUKAS PREST eta beste talde bat.

00:00 PLAY-BACK LEHIAKETA gaztetxean. Eman izena lehenbailehen inkernu, Naira edo Aldatz tabernetan.

Egubakoitza, 1

19:00 PRESO ETA ERREFUXIATUEN ALDEKO KALEJIRA txarangarekin, Euskal Jaian.

Zapatua, 2

17:00 KOADRILEN ARTEKO KIROLAK ETA JOKOAK, taberna mugikor eta guzti. Eman izena tabernetan.

19:00 PERKUSIO KONTZERTUA.

22:30 ROCK KONTZERTUA herriko plazan.

Ondo ibili San Pedrotan!



Sukaldeko tresneria • Lapiko Lasterrak • Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3 / Tel.: 943 71 41 31 / Eskoriatza 20540

**OTZETA
JATETXEA**

Aranburuzabala 7
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 31 67

Eguneko menua

•
Gazte menua

•
Karta

•
Bazkariak eramateko

San Pedro jai zoriontsuak!



DANTZA KAUKASOKO DANTZA KONPAINIAREN IKUSKIZUNA

Kaukasoko folklorea erakutsiko dute dantzekin

Eguaztenean, Kaukasoko Dantza Konpainiak 'La auténtica leyenda' izeneko ikuskizuna egingo du

IKER BARANDIARAN

Eguaztenean, Kaukasoko Dantza Konpainiak herrialde horretako dantzak erakutsiko ditu Gorosarri plazan. 23:15ean izango da, eta 33 dantzari izango dira.

Eguaztenean, Eskoriatzako Gorosarri plazak kaukasiar itxura hartuko du gau partean. Udalak dantza talde ikusgarria ekarriko du herrira: Kaukasoko Dantza Konpainia, hain zuzen ere. Tbilisiko (Georgia) talde horrek hainbat bira egin

ditu Europan, eta aurtengoa Espainiako Estatura datorren bigarren aldia izango da. Iaz ez zuten Euskal Herrian ikuskizunik egin, baina aurten euren folklore eta artea gure artean erakusteko gogoz datoz.

Dantza taldea 1975ean sortu zuten, Tbilisiko Kultura eta Dantza Unibertsitatean. Poliki-poliki taldea aditzera eman zuten, eta Kaukasoko talde ezaguna bilakatu da. 1996a ezker Nona Djandagaschvili da taldearen zuzendaria. Nonak Tbilisiko unibertsitatean ikasi zuen dantza egiten, eta oso maila handia dauka.

Koreografien arduraduna, berriz, Alexander Cima-



CLEOZAR EKOIZPENAK

33 dantzari eta hiru musikari esku hartuko dute ikuskizunean.

kurudze da. 1985a ezkerreko talde horretako partaidea, eta Kaukasoko ohituren eta kulturaren gaineko ezagutza handia dauka.

La auténtica leyenda izeneko ikuskizunak ordu eta erdi irauten du, eta horren baitan hainbat dantza ikusgarri egingo dituzte (beste-

ak beste, dagekin...). 33 dantzari esku hartuko dute, eta hiru musikari lagunduko dituzte. Musikariek Kaukasoko instrumentuak joko dituzte: flauta, *dombra* ... —sokako instrumentu berezi bat—, haize-instrumentuak, akordeoia...

Kontatu digutenez, kaukasiar horiek izugarritzko trebezia daukate taula gainean dantzan.

“1975ean sortu zuten taldea Tbilisin (Georgia), eta Eskoriatzan 33 dantzari eta hiru musikari esku hartuko dute”

Astelehena, 28

18:30 Jaiei hasiera emateko TXUPINAZO eta PREGOIA herriko plazan. Aurten, Eskoriatzako Kirol Elkarteko areto futbol taldeak egingo du.

Ondoren MUSIKA ESKOLAKO BANDAREN kalejira.

19:00 BURUHANDIAK txistulariekin batera eta kalejira herriko kaleetan zehar.

19:30 San Pedro elizan PARROKIAKO ABESBATZAK lau ahots mistotan H. Eslavaren SALBEA abestuko du.

20:00 Herriko plazan DANTZALDIA EGAN taldearekin.

22:30 NAGUSIEN DANBORRADA. Hainbat konpainiak esku hartuko dute.

01:30 Berrito ere DANTZALDIA TRIKIZIO taldearekin. Ordu txikietara arte iraungo du giroak eta dantzak herriko plazan.



Gaztainadui 21 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 53 87

Larmanta

Josunek eta Maitek San Pedro zoriontsuak opa dizkizute.



AZKOAGA

ESTANKOA

Zure zerbitzura
ESKORIATZA

Ondo ibili danok San Pedrotan!

Mendraka

Txakolina

Tel.: 94 682 00 00
ELORRIO

DANBORRADA DANBORRAK, BARRILAK ETA SARRIEGIREN MUSIKA, MARTITZENEAN ETA EGUENEAN

Aurten lixibagileen omenezko karroza egin dute

Umeak ere aterako dira danborradan, Umeen Egunean; 18:30ean hasita.

U.M.

Ehun lagun inguru aterako dira nagusien danborradan; emakumeak nagusi.

Dorleta, Elixoste, Egokiena, Barrilerak eta Amuska. Konpainia horiek egituratuko dute nagusien

danborrada. Emakumeak izango dira nagusi Eskoriatzako danborradan, Amuska emakume elkar-teak bi konpainia osatzeko beste emakume batu dituzte. Danborradako karroza ere emakumeek egindakoa da: kamioi baten gainean, harraska bat: "Lixibagileak omendu nahi ditugu karrozan; etxeko lanik gogorrenetako bat



Gaztetxoak zein nagusiak buru-belarri ibili dira danborradarako entseatzeko.

egiten baitzuten eta maiz, herriko familia aberatsenen arropak garbitu eta lisatu ere bai. Eta jakina,

Eskoriatzako Bainuetxean, otzara arropa galantak garbitzen zituzten, erreal gutxi batzuen truk".

Ibilbidea honakoa izango da: San Pedro, Intxaurtxueta, Dorleta, Aranburuzabala eta plaza.

Eguena, 30

09:00 Herriko txistulariekin KALEJIRA

12:00 Pirritx eta Porrotx PAILAZOAK Gorosarri plazan.

12:00 Herriko hildakoen aldeko MEZA.

13:00 Xanadu orkestrarekin DANTZALDIA herriko plazan.

16:30 XIV. MUS TXAPELKETA Gernika plazan. Izenematea ordu erdi lehenago. Prezioa: 12 euro.

18:30 HAURREN DANBORRADA.

20:00 Xanadu orkestrarekin DANTZALDIA plazan.

23:00 TTAKUNPA taldea Gorosarri plazan. Afrikar perkusioa eta txalaparta nahasten ditu Ttakunpak, gure sustraiak eta urruneko erritmoak nahastuz.

24:00 Xanadu orkestrarekin DANTZALDIA plazan.

URKULU

FERRETERIA • BRICOLAGE
INDUSTRIA HORNIDURAK



hurbila eta profesionala

Torrebaso Pasealekua, 16 • 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)
Tel. 943 71 30 30 • Fax 943 71 25 55 • urkulu@cadena88.com

www.urkulu.com

**San Pedro jaietan,
eskoriatzar guztiei
eta kanpotik bisitan datozenei**

zorionak!



Ondo pasau
San Pedrotan!

SÍO...
BAI?


Erantzuna Udal Euskaltegian

23 urte / 43 zentro /
maila guztiak /
Ordutegi zabala /
Bekak / HABEko diplomak ...



<small>HABEren diruagintzaz</small>	LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA	
	Nafarroa 2-4 20550 ARETXABALETA	
	Tel.: 943 79 21 68 Faxa: 943 79 92 62	
	Intxaurtxueta 10 20540 ESKORIATZA leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net	
www.udaleuskaltegiak.net		

Aretxabaleta | Arrasate | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza |
Hernani | Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz



Laser bidezko depilazioa:

bizkorra, progresiboa eta segurua.
Kendu nahi ditugun ileak
deuseztatzeko eraginkorra,
emakume eta gizonentzako.

Ondo ibili San Pedrotan!



EDURNE

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUKO ZENTROA

ESKORIATZA
943 71 51 54

KIROLAK

ASPE ENPRESAREN ESKUTIK PILOTA JAIALDIA EGUAZTEN ARRATSALDEAN

Irujo eta Gonzalez pilota jaialdian lehian

Eguazten arratsaldean (18:30) pilota jaialdia egingo dute; bi partidu jokatuko dituzte

XABIER URTZELAI

Eskuz binakako bi partiduk osatuko dute eguazteneko pilota jaialdia. Erakargarriena, horietako batean Gonzalezen eta Irujoren arteko lehia izango dela.

Ohikoa ez bada ere, arratsaldean jarri dute San Pedrotako pilota jaialdia, baina ordutegi aproposa izan daiteke pilotalekua betetzeko, jaialdiak merezi du eta. Hala, lehenengo norgehiagokan Berraondo antzuolarrak eta Galartza

VI.a bizkaitarrak Galartza V.a eta Urberuaga izango dituzte aurrean. Gero etorriko da jaialdiko partidu nagusia: buruz buruko txapelkunorde Juan Martinez de Irujok Eulate izango du atzelari, eta txapelketa horretan lan txukuna egin duen Gonzalezek Pascual izango du atzeko koadroak zaintzen. Atzelariak gutxietsi barik, esan gabe doa bi aurrelari horien artean egongo den lehiak egiten duela norgehiagoka erakargarri.

Batetik, ikusteko dago oportetarik bueltan egongo den Irujok zein maila erakusten duen. Finala galdu-ta, kolpe gogorra jaso zuen



Finala jokatu eta gero, hatz txikia lehenbailehen sendatu gura zuela esan zuen Irujok.

Atano III.a pilotalekuan, eta hori lehenbailehen ahazten laguntzeko, zale asko izango ditu Eskoriatzan. Kontrario izango du, baina,

Gonzalez. Iparraldeko pilotariak azken txapelketan burukomin galantak eman dizkie aurrean izan dituen kontrarioei.

Atzelariei dagokienez, Eskoriatzako pilota taldeko Joseba Inurrategik esan digu Pascual oso gorputzaldi onean dagoela, eta Eulate enpresak jaialdi askotan sartzen duela: "Zerbaiten seinale da hori".

Sarrerei dagokienez, kantxako sarrerek 18 euro balioko dute, eta harmailetakoek 12 euro. 17:00etan irekiko dituzte leihatilak.

Ikusteko dago oportetarik bueltan egongo den Irujok zein maila ematen duen; gainera, Gonzalez izango du aurrean

Egubakoitza, 1

09:00 Herriko txistulariekin KALEJIRA

12:00 EUSKAL DANTZA Gorosarri plazan. Eskoriatzako Musika Eskolako dantzari taldeen ikuskizuna.

12:30 Talogileak eta sagardo kupelak herriko plazan. Jai giroa alaitzen IZAR ETA ALABIER trikitilariak.

12:30 Umeendako, artzainen JOLAS eta JOKOAK.

13:00 TRIKITILARIA Eskolako ikaskideekin kalejira.

14:30 HERRI BAZKARIA Gorosarri plazan. Bazkalostean, trikitilarietako erromeria egingo dute.

18:30 BURUHANDIEKIN eta Baralde txarangarekin kalejira.

19:30 Euskal preso eta errefuxiatuen aldeko KALEJIRA, txarangarekin batera.

23:00 TAPIA ETA LETURIA bikotearekin dantzaldia herriko plazan.

24:00 Jai bukaerako TRAKA eta bandera jaitsiera.

LENIZ
ESKORIATZA

Jairik zorientzuenak opa dizkizue Lenizek!

Ondo ibili!

KONPONKETAK: TXAPA, MARGOA, MEKANIKA

Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA
Tel.: 943 71 50 61 / Faxe: 943 71 31 45
Posta-e: rleniz@euskalnet.net

Hemen
GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

Gora San Pedroak!

943 71 48 45 www.hemen-garbiketak.com

ELKARRIZKETA MIGUEL ANGEL CASADO SAN PEDROTAKO IRUDIAREN EGILEA

'Oso garrantzitsua da ume eta gazteendako ekintzak antolatzea'

IKER BARANDIARAN

Miguel Angel Casado eskoriatzarrak egin du aurtengo San Pedrotako irudia. Irudiaren, jaien eta bestelako gainean berba egin duzu Miguelekin.

Lehiaketa horretan esku hartzen duzun lehenengo aldia da?

Bai, hala da. Lagun batek esan zidan lehiaketa hori antolatu zutela, eta izena emateko bultzada eman zidan. Tarteka lanean denbora apur bat nuenean zirriborroak egiten nituen, eta azkenean lana bukatu eta aurkeztu nuen.

Espero zenuen irabazle izatea?

Ez, horixe. Ez neukan halako esperantzarik. Errotuluak egiten lan egiten dut, eta gure lanak diseinuarekin harremana dauka, baina ni ez naiz arlo horretan espezialista. Izugarrizko ustekabea hartu nuen deitu zidatenean.

Zer iritzi daukazu halako ekimenen gainean?

Halako lehiaketak anto-

latzea ideia ona dela uste dut. Horiei esker, artista ezezagunak ezagutzera eman daitezke. Nik neuk, adibidez, izena eman nuen nire herrian zelako, eta jaien gaineko oroitzapen handiak ditudalako.

Beste lehiaketaren baten esku hartu duzu?

Oso gutxitan. Baina badut pasarte bitxi bat. Laz Gobiarango (Valdegobia) patataren jaiaren irudi lehiaketan esku hartu nuen. Ez nuen lehiaketa irabazi, baina antolatzailerik deitu zidaten esateko irudia oso gustuko zutela, eta beste erabilpen bat eman gura ziotela. Kontua da irudia ganberro samarra zela, eta hori erabiliz jaien barruan rock musika taldeen egun bat egitea erabaki zutela. Ez nintzen egun jakin horretan Gobiaranen izan, baina patataren gaineko jaira gonbidatu ninduten, eta garaikur bat eman zidaten. Gurako nuke jakin ea aurten ere musika taldeen egun hori egingo duten.

Zer sari jaso duzu, eta zer egingo duzu horrekin?

300 bat euro emango dizkirate, agian apur bat gutxiago. Lehenik eta



behin, esku hartzeko ideia eman zidan lagunarekin afari on bat egingo dugu. Horren ostean, pentsatu behar...

Jaiak gustuko dituzu? Jaietan kalera asko irtetekoa zara?

Txikitan jaiak izugarri gustatzen zitzaizkidan.

Nire urtebetetzea baino askoz hobeak ziren. Zegoen gauza handiena ziren niretzat. Oso oroitzapen onak ditut: ahalik eta ekintza gehienetan esku hartzen nuen, jokoetan, lehiaketetan...

Gaur egun, ahal dudanean, behintzat, kalera

"Plazan bizi nintzen eta etxetik jaiak ikusten nituen"

"Lagunekin egoteko aitzaki ederra dira jaiak"

"Umetan jaiak ziren zegoen gauza handiena"

irten eta jaietan ibiltzen naiz, baina ez dut aukera handirik izaten. Izan ere, Arrasaten nabil lanean eta San Pedro jaietan lan egin behar izaten dut. Horrez gain, dagoeneko ezkondu ta nago eta koadrilakoak ere gutxiago ibiltzen gara kalean. Dena dela, aukera dudan guztietan, bai, ibiltzen gara.

Zer atsegin duzu gehien San Pedro jaietatik?

Batez ere, jendearekin

eta lagunekin batzea. Gura duzun jendearekin denbora luzeagoa emateko aitzakia dira jaiak.

Eskoriatzako jaiak hutsuneren bat daukate ala uste duzu?

Ez dut uste. Hala ere, azpimarratu nahiko nuke oso garrantzitsua dela umeendako eta gazteendako ekintzak antolatzea. Azken finean, eurak dira jaiak gehien gozaten dituztenak, euren dako dira eta bereziak, eta gainera helduak ez gara ume eta gaztetxoak bezain ausartak.

Zuk egindako irudian esku ugari ikusten dira Udaletxe parean. Zer irudikatu gura izan duzu lanean?

Ez dut beste jaiaren bat imitatu gura izan. Halakoa da txikia nintzeneko San Pedroren gainean daukadan oroitzapena. Txikitan herriko plazan bizi nintzen, eta oso txikitatik jaiak gelako leihotik ikusten nituen. Ez dakit lehen jaietan jende gehiago ibiltzen zen edo ez, baina plaza jendez gainezka gogoratzen dut. Horrez gain, Udaletxearen arkuak eta elizaren silueta marraztu ditut. Herriko armariaren kolore berdea ere sartu dut.



Dorletak jai zoriontsuak opa dizkizue!

Aranburuzabala 22, behea • Tel.: 943 71 51 20 • ESKORIATZA

FRIXI Eraikuntzak

Ondo ibili San Pedrotan!

Hormigoizko estrukturak, urbanizazio, kontratak eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 • ESKORIATZA • Tel.: eta faxa: 943 71 55 15 • Poltsikokoa: 629 51 39 22

Hogeita zortzi, eskuak igurtzi.

Hogeita bederatzi, tristurak ahantzi.

Hogeita hamar, dexente xamar.

Uztailaren lehena, egunik onena.

